

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

2023ko urriaren 26ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren laburpena, Amurrioko Gabonetako 2023ko pintura lehiaketa deitzen duena

BDNS(Identif.): 724811.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/724811>.

Erakunde adjudikatzailea: Amurrioko Udala.

Bulegoa: kultura Arloa.

Helburua: «Gabonetako Pintura 2023» lehiaketaren deialdia arautuko duten baldintzak arautzea, norgehiagoka bidez.

Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak: jatorrizko eskumena alkatetzari badagokio ere, kontuan hartuta alkatearen ekainaren 26ko 23/397 dekretuaren bidez egindako eskuordetza, hura onesteko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra da. Instrukzioa Kultura Sailari dagokio.

Onuradunak: Amurrioko 14 urtetik beherako pertsona guztiak.

Baldintzak eta aurkezteko modua: Gabonak dira nahitaezko gaia. Edozein teknika erabil daiteke: marrazkia, pintura, collagea... Gehienezko neurriak 50x40 zentimetrokoak izango dira. Margolan bana lehiakideko; dnea den, lan batek egile bi izan ditzake.

Helburua: haurren marrazketa eta pintura sustatzea.

Oinarri arauak: behin betiko onetsiak dirulaguntzak arautzen dituzten gainerako oinarriekin batera, Amurrioko Udalaren 2022ko abenduaren 22ko osoko bilkuraren erabakiaren arabera, eta osorik argitaratuak 2023ko otsailaren 24ko ALHAOn (23. zk.).

Zenbatekoa: hona hemen deialdi honetako lehiaketako sariak banan-banan:

A kategoria: 6 urtera arte (2017an jaiotakoak barne):

1. Diploma eta oparia.
2. Diploma eta oparia.
3. Diploma eta oparia.

B kategoria: 7 urtetik 10 urtera (2013 eta 2016 artean jaiotakoak):

1. 60 euro (pintura materialetan) eta diploma.
1. 50 euro (pintura materialetan) eta diploma.
1. 40 euro (pintura materialetan) eta diploma.

C kategoria: 11 urtetik 14 urtera (2009 eta 2012 artean jaiotakoak):

1. 70 euro (pintura materialetan) eta diploma.
2. 60 euro (pintura materialetan) eta diploma.
1. 50 euro (pintura materialetan) eta diploma.

Oinarri hauetan araututako edozein sari jasotzea bateragarria da beste edozein sari edo diru-laguntzarekin.

Gastua 33478.480 partidatik egingo da. Zenbateko horretan egoki diren atxikipenak egingo dira, PFEZren araudian ezarritakoari jarraituz.

Oinarri arauak, argibideak eta agiriak: Amurrioko Udaleko Kultura Arloan (Juan Urrutia plaza z.g., 01470 posta kodea, 945 89 11 61 telefonoa), eta Amurrioko Udalaren web orrian, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izena emateko epea amaitzen den arte, 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

Margolanak entregatzeko lekua: Amurrioko Kultur Etxea (945.891450).

Margolanak entregatzeko epea: 2023ko abenduaren 4tik 16ra. Garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskaerak baino ez dira onartuko izapidetzeko.

Aurkeztu beharreko agiriak: Margolanekin batera, atzealdean, izenburua, izen-abizenak, adina eta telefono zenbakia jarriko dira.

Juan de Aranoa udal arte eskolak proposatuta, artearen munduarekin zerikusia duten hiru lagunek osatuko dute epaimahaia. Erabakia apelaezina da. Epaimahaiak erabakiko du lehiaketako margolanak baloratzeko irizpideei buruz. Hala ere, epaitza honetan oinarrituko da:

Proposatutako gaiaren interpretazio berria (ehuneko 25).

Gaitasun teknikoa (ehuneko 25).

Konposizioa eta oreka (ehuneko 25).

Ikusizko inpaktua (ehuneko 25).

Jakinarazteko bidea: udalaren webgunean.

Ebazteko epea: 7 egun.

Deialdiaren ebazpena jakinarazteko epea: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua arabera, egintza eman eta hamar eguneko epean egin behar da jakinarazpena.

Ebazpena: arte arloko bi adituk osatuko dute erakutsiko diren margolanak aukeratzeaz eta sariak emateaz arduratuko den epaimahaia. Erabakia apelaezina da.

Errekurtsoak: ebazpenak amaiera emango dio bide administratiboari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegian, jakinarazpena ematen denetik bi hilabeteko epean. Nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, jakinarazpena ematen denetik hilabeteko epean.

Amurrio, 2023ko azaroaren 3a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA